

SAN PRUDENTZIO I. PROBLEMA TXAPELKETAREN OINARRIAK. 2011

1.a.- Txapelketa honetan nahi duten xakelari guztiek har dezakete parte, beren kategoria, adina, sexua eta federazioa edozein delarik ere.

2.a.- Txapelketa zuzenean egingo da Arabako Xake Federazioaren aretoetan (Beti Jai frontoiko Kirol Esparrua, Amadeo García de Salazar nº 2, enparantzan) 2011ko maiatzaren 7an, larunbata, 17:00etan, eta bi ordu eta erdi iraungo du.

3.a.- Txapelketa honetan hurrengo problemak ebatzi behar dira: 2 jokalditan zuzenean mate emateko 6 problema eta 3 jokaldiko beste 2 problema. Problemak aztertu eta ebazteko parte hartzaileek bi ordu eta erdi izango dituzte eta denbora hori igarotakoan, emaitzak baloratu eta jokalaria bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera sailkapena egingo da.

4.a.- Emaitzak sistema algebraiko laburtuan transkribatu beharko dira eta izaera bereko bi pieza lauki berberera joan daitezkeenean bakarrik adierazi beharko da jatorrizko laukia. Datu hori adierazi ez izanak puntu bat galtzea ekarriko du berekin.

5.a.- Puntuazio sistema hau izango da: 2 jokaldiko problemetan, gakoa eta mehatxua (edo blokeoa, hala denean) aipatzeagatik 3 puntu emango dira, eta beste puntu bana mehatxua gelditzen duten defentsetako bakoitza eta dagokion matea aipatzeagatik. 3 jokaldiko problemetan gakoak, mehatxuak eta mateak 5 puntu balioko dute. Mehatxu bakoitzari aurre egiten dion aldaera bakoitzeko beste puntu 1 emango da. Defentsetan jarraipenak eta mateak aipatu behar dira.

6.a.- Jokalari biren edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, problemak aztertzeko erabili duten denbora erabiliko da ebazteko. Emaitzen orrian txapelketaren epaileak idatziko du jokalaria bakoitzak erabilitako denbora.

7.a.- Txapelketak iraun bitartean jokalaria ezin izango dira inola ere jokatzeko aretotik irten eta sakelako telefonoek itzalita edo soinua kenduta egon behar dute. Sakelako telefono baten soinuak jokalarien kontzentrazioa eragotziko balu, bere jabeari 5 puntuko zigorra jarriko zaio eta bitan joz gero, aretotik kanporatuko du epaileak.

8.a.- Babesleek eman ditzaketen garaikurrak gorabehera, hurrengo sariak emango dira:

1. Saria: 200 Euro.
2. Saria: 100 Euro.
3. Saria: 50 Euro.

Halaber, jubententzako 50 euroko sari bat emango zaio txapelketaren egunean 18 urte beteak ez dituen lehen jokalariari. Sari hori kategoria absolutuko beste batekin pila daiteke.

9.a.- Izen ematea doakoa da eta Arabako Xake Federazioaren bulegoetan edo 646128402 telefonora deituta formalizatu behar da, txapelketaren eguna baino 2 egun lehenago. Parte hartzaileek txapelketa hasi baino 15 minutu lehenago agertu beharko dute jokatzeko aretoan, txapelketaren zuzendariak nola jardungo duten azalduko baitie.

10.a.- Txapelketa José Antonio Coello Alonsok zuzendu eta epaile lanak egingo ditu, emaitzak aztertu eta lehiaketaren bukaeran sailkapena ezarriko du. Apelatzeako batzordeak Enrique, José Ramón eta zuzendari jaunek osatuko dute. Batzordearen erabakiak apelaezinak izango dira. Sailkapena ezarritakoan, irabazleei dagozkien sariak emango zaizkie. Oinarrietan zehaztu gabeko edozein gorabehera lehiaketaren batzordeak aztertu eta ebatziko du. Txapelketa ondo ateratzeak berekin ekarriko du edizio gehiago egitea.